–arabiarrak arabiarren kontra jarri zituen Sei Eguneko Gerrak eta Irail Beltzak– gainditu egiten dute Nabhan. Beste horrenbeste gertatzen zaio bere nobelako protagonistari.

Neurri batean, autobiografikoa da *L-Ezodu tac-Cikonji*. Egileak berak bezala, bizi osoa herrialdetik kanpo igarotzen du Nabilek, Jordanian lehenik eta Maltan ondoren. Azken horretan, hizkuntza ikasi eta herritartasuna lortu ostean, etxean sentitzeko aukera eskura dauka lehen aldiz, eta, hala ere, ideia horrek ez dio sosegurik eskaintzen. Palestinan zein arabiar herrialdeetan oro har gertatzen denak eragin handia du berarengan; ezin du bere burua

**Sekula bisitatu ez duen herrialdearen mina du narratzaileak, eta min horrek definitzen du bere existentzia**

mundu horretatik kanpo ulertu, nahiz eta mundu horren barruan galera besterik ez duen ezagutu. Bere bizitzan Palestina independente baten aukera baztertu, eta umezurtz egoera behin betikoa duela onartu badu ere, sekula bisitatu ez duen herrialdearen mina du, eta min horrek definitzen du haren existentzia. Zaila da, ordea, min hori azaltzea erbestea, geografikoa zein psikologikoa, inoiz ezagutu ez duenari.

Maltako gainerako herritarren antzekoa izaten gogor saiatzen bada ere, Nabilek bere buruari aitortu behar dio inguruan herrikiderik ez izatea gogor egiten zaiola. Nabhanen beraren *Dena ez da* (2009) ipuineko narratzaileari beste horrenbeste gertatzen zaio, hortik hirian denda baten jabe den palestinarraren berri izan eta berehala hura ezagutu behar duela erabakitzea. «Ezin nuen itxaron. Ama jendetzaren artean galdu ostean hura begiz jotzen duen haurraren antzera korrika egin nuen. Telefonogidan zenbakia topatu eta irrikaz sakatu nituen botoiak. Palestinako norbaitekin hitz egiteko gogo bizia nuen –gizon, katu, edonor– nire hizkuntza, ezin ahantz nezakeen hizkera, berriro entzutearren».

Enkontruak, ordea, ez ditu narratzailearen aurreikuspenak betetzen. Enpatia eta elkartasun keinuak eskaini beharrean, herrikidea dendari rolean zuzentzen zaio narratzaileari, eta ezer erosi nahi duen galdetzen dio. Palestinar izan ala ez, tokiko ala erbesteratu, berak ere bizimodua aurrera atera behar du.

# Antologikoa

**Alex Gurrutxaga**

Susa etxearen Munduko Poesia Kaieren bildumak eman diezaguke zer pentsatua. Zergatik da Urlia kanonikoa? Zergatik hain zaila kanona aldatzea? Zergatik ez dago Berendia kanonean?... Halako galderek, kanonaz eta antologiez ez ezik, literaturaren sistemaz eta historiaz ere pentsaraz diezagukete.

Eta, hala ere, eztabaidak eztabaida, badira poeta kanonikoak, obra antologikoak, hor behar dutenak: horietako bat da Dylan Thomas (1914-1953). Galesen sortu zen Thomas, eta 40etako ingelesezko poeta interesgarriena da. Beñat Sarasolak kaieraren hitzaurrean esaten duen bezala, jada nekez bereiz daitezke poetaren obra eta bere mitoa, bizitza bohemioa eduki baitzuen, eta beti hurre, alkohola eta eskandalua. Bere lehen liburua, *Hemezortzi poema*, 1934koa da. Gero, gerra garaian, BBC irratian aritu zen, eta haren emanaldiak aski ezagunak bihurtu ziren. Lan poetiko nagusia 1946an kaleratu zuen: *Heriotzak eta sarrerak*.

Thomasi zuzenean eragin zioten iturri nagusi bi aipatu izan dituzte adituek. Batetik, Galesko literaturaren tradizioa dago –baladak, ipuinak, eta abar–. Gainera, bertako paisaietatik altxatzen da poesia hau. Bestetik, berriz, hala Dylan Thomasen




**'Munduko Poesia Kaierak. Dylan Thomas'**
**Egilea:** Dylan Thomas. **Itzultzailea:** Iker Alvarez. **Argitaletxea:** Susa.

obra nola figura poeta madarikatuei lotuta daude.

Irudia eta musika dira bere poesiaren oinarria. Sinbolismoak lehen modernisten ildoan jartzen du, XIX. mendeko poeta frantsesen zordun. Baina Thomasek mugara eramaten du tropoen lanketa, eta horretan bereziki gertu legoke W. Blaken eta A. Rimbauden irudi-mozkorraldietatik; *Bihotzaren eguraldiko prozesu batek* aipa daiteke, adibidez, edo kutsu biblikoa daukan *Nire genesia amestu nuen*. Surrealismoaz ere hitz egin izan da; Thomasek berak adierazi zuen ez zegoela inola ere ados surrealisten ideiekin, eta ez zela posible poema batean irudiak edozein moduz paratzea. Baina, esanak esan, bere poesian, irudimenaren hegaldi izugarrien bidez, giro onirikoa sortzen da maiz. Estilo horrek asko urruntzen du adierraztasunetik, eta irakurlearentzat interpretazioaren lehen eskailera-maila oso goian geratzen da.

Thomasen beste marka poetikoa musika da, hori ere sakonki modernista. Adibidez, *Neguko ipuin batena* poema luzean, zangalatrabaka, esaldia esaldiari kateatuz, irudia irudiaren gainean jarriz egiten du poemak aurrera. Hori euskarara nola ekarri, hahor koxka. Itzulpena Iker Alvarezek egina da eta, halako erronka balioestea ausarkeria izango litzatekeenez –are gehiago konparaketa sakonik egin gabe–, har dezadan inpresio pertsonala emateko lizentzia: ematen du lortu duela, askotan behintzat, erritmo baliokidea-edo birsortzea. Azpimarratzekoa da zentzua pittin bat behartu arren erritmoari –hain garrantzitsua kasu honetan– eusteko ahalegina. Adibide fina da zatitxo hau: «*As the grains blow, as your death grows, through our heart*»; «Alea da haiza, heriotza hazi, gure bihotzetik».

Poema bilduma ederra da Dylan Thomasena. Oso ona, poesia-zalearentzat, uda beteko beroan pixkana-pixkana gozatzeko. Aparta, niretzat, esker onez beteta eta pena ttantta batekin, azken iruzkin kritikoa egiteko. Eskerrik asko, bihotzez, BERRIAri eta irakurleoi.

Dylan Thomas: «Ez nezake amestu inoiz hainbeste gertakari zirenik/ Liburu-azal barruko munduetan/ Hitzen halako harea-ekaitz eta izozkada...»

# 'Do androids dream of electronic mouses?'

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

**Imanol Mercero**

Tamaina handian eta kartoi gogorreko azalekin kaleratutako liburu handikotea da (22x28cm), jada txikienekin irakurtzen gozatzeko aproposa, baina kozkorragoekin (helduekin?) saiatzeko moduko proposamena eskaintzen duena.

Album ilustratu deitzen den liburu mota da; alegia, testuarekin ez ezik, irudiekin ere garatzen da kontaketa. 32 orrialde ditu.

Lanak hainbat irakurketa maila eskaintzen ditu. Oinarrizkoena –agerikoena– narrazioaren motortzat egiten duen *gatazka* da: etxeko sagu batek sagu mekaniko bat ezagutzen du. Hasieran abantailak baino ez dizkio ikusten laguntxo berriaren bizimoldeari, baina jostailu aldaketa garaia iristean, libre eta buruaskia izateak zenbat balio duen jakingo du.

Irakurketaren bigarren maila batean, bizitza artifizialaren inguruko hausnarketa proposatzen da, aski iradokitzaileak diren adibide pare bat eskainita.

Hirugarrenik, alderdi grafikoak sor lezakeen harridura dago: collage teknika soilarekin burututako lan harrigarriki eraginkorra baita, noiz eta 1969an egina, ordenagailurik gabe!

**'Alex eta sagu mekanikoa'**
**Idazlea eta ilustratzailea:** Leo Lionni. **Itzultzailea:** Manu Lopez Gaseni. **Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka.

# Ipuinen munduan dena da errazago

**HAUR ETA GAZTE LITERATURA**

**Imanol Mercero**

Ipuin tradizional baten osagaiak dituen istorioa da, tapa gogorreko liburu ertainean (22x22cm) emana, eta 32 orrialde dituena.

Haurrekin boz gora irakurtzeko aproposa da –batik bat 5-8 urtekoekin–, baina, oroz gain, ipuinak entzutea maite duen edonoren belarriak gozatzeko modukoa dela ahaztu gabe, adina gorabehera.

Izenburuak nahasmena sor lezake, ez baita *bullying*-az hausnartzeko ohiko istorio bat. Aldiz, halako gertaera sozialetako elementuak hartzen ditu, ipuinetan baino gertatu ezin diren ekintzak eta pertsonaiak akzioan jartzeko: irainak, haserrea, erreakzio bortitzak erasoen aurrean... Horiek denak eta gehiago plazaratzen dira. Ez ordea testuinguru erreal batean, baizik eta ipuinetako lurraldean, zeinetan sinbolismoaren bidez gertaerak muturrera eraman ahal diren, minik hartu gabe.

Gainera, harrigarriki, hau dena umorearen bitartez eskaintzen zaigu, eta, ondorioz, haurrak halako gai bortitzaz lezio txiki bat jasoko du, bere burua errudun sentitu gabe, eta estresik gabe.

Irudiek Mitxelena desberdin bat ikusteko aukera eskaintzen digute.




**'Tontolapiko'**
**Idazlea:** Pello Añorga. **Ilustratzailea:** Jokin Mitxelena. **Argitaletxea:** Denonartean.